

Bortxakeria kulturala

Johan Galtung

G E R N I K A S A R E A

GERNIKA  GOGORATUZ

14. Dokumentua

Bortxakeria kulturala

Johan Galtung



Giza Eskubideen eta Justizairekiko Lakindetzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Justizi Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Kultura Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Gernika-Lumoko Udalak aldi berean finantziatua.

Cofinanciado por la Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, el Departamento de Cultura y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, y el Ayuntamiento de Gernika-Lumo.

Izenburua: *Bortxakeria kulturala.*

Jatorrizko izenburua: *Cultural violence.*

Ingeleseko itzulpena: Ibon Uribarri.

Argitaratzailea: Gernika Gogoratuz. Bakearen Aldeko

Aztertegia. Gernika Gogoratuz Fundazioa.

Artekalea, 1-1º

E-48300 Gernika-Lumo

Bizkaia (Spain)

Tel.: +34 94 6253558

Fax: +34 94 6256765

Idazkaritza: gernikag@gernikagogoratuz.org

Dokumentazio Zentrua: gernikadok@gernikagogoratuz.org

<http://www.gernikagogoratuz.org>

Gernika Sarea bildumaren zuzendaria:

María Oianguren Idigoras.

© Johan Galtung, 1989

© Ingeleseko argitalpena: Journal of Peace Research,
1990 (*Journal of Peace Research*, 27. bolumena,
3. zenbakia, 1990, 291-305 orrialdeak)

© Euskerazko argitalpena: Gernika Gogoratuz, 2003

Lege-gordailu: BI-641-97

ISSN: 1136-5811

Gernika Gogoratuz Lan Dokumentuak, 14. zenbakia

(2003ko Abenduak).

Salneurria: 4,00 euro.

Aurkibidea

Euskerazko argitalpenaren hitzaurrea	
Johan Galtung	4
Aurkezpena	6
1. Definizioa	7
2. Bortxakeria zuzenaren eta estrukturalaren tipologia	9
3. Bortxakeriaren hiru modu	12
4. Bortxakeria kulturalaren adibideak	15
4.1. Erlijioa	15
4.2. Ideologia	16
4.3. Hizkuntza	18
4.4. Artea	18
4.5. Zientzia enpirikoa	19
4.6. Zientzia formala	19
4.7. Kosmologia	19
5. Gandhi eta bortxakeria kulturala	21
6. Amaiera	23
Oharrak	25
Bibliografia	27

Euskerazko argitalpenaren hitzaurrea

Kultura sakona eta gatazka kultura

Johan Galtung

Gatazka baten erroak kontraesanetan daude beti, hau da, bateraezinak diren helburuetan. Baina gatazka batek arrunki jarrerarekin eta portaerarekin zerikusia duten alderdiak ditu. Eta arrunki subkontziente kolektiboak, kultura sakonak, nazioaren kosmologiak, generoak, klaseak, eta abarrek baldintzatzen ditu jarrera horiek. Eta gatazka egoeretan ikasitako modeloez baldintzatzen dute portaera.

Kultura sakona sinesmenen biltegi bat da, baita gatazkari buruzkoak ere. Berezkotzat hartzen ditugu, normalak eta naturalak dira, gatazkek horrelakoak dira, ez da zalantzan jartzen. Zibilizazioek euren jarrera dute autu nagusiei buruz, hala nola, ea historia funtsean lerro bat den eta krisi baterantz doan, zerua edo infernua izanik emaitza posible bakarrak, edo ea lasaia den, denboran leunki kulunkatzen den. Espazioa era dualistan definitzen dugu, gu eta haiek, Norbera Bestearen aurka, edo beste eratara. Espazioa dualista bada, Beste hori menperatu behar den periferia bezala ikusten da, urrun mantendu behar den barbaroa, edo Gaizkia, satanikoa bezala, zelatan eta zabuka, guri erasotzeko zain. Kultura sakonak, orduan, historia funtsean Jainkoa eta Deabruaren arteko gatazka gisa ikus dezake, gure arima lortzeko gatazka besteak beste; gerrak irabazi eta haiek gure mesederako gainditzen dituen heroia eta/edo bakea ekartzen duen pertsona santua jar ditzake erdigunean. Eta orduan, kultura sakon sakonean kokatzen dira ezagutzari buruzko ikuspegiak: ezagutza atomistikoa, errealitatea zati txikietan zatikatzen duena, ezagutza holistikorekin aurka, osotasunean duena erdigunean, eta ezagutza deduktiboa edo dialektikoa, hau da, kontraesanik gabekoa edo ez.

Kultura sakonaren konbinazio zorigaiztokoena hauexek lirateke:

- Kontraesanak absolutu gisa ikustea, helburu hau edo hura.

- Ekile eta helburu gutxietan geratzea, eta ikuspegi deduktiboa.
- Norbera Jainkoagan proiektatzea eta Bestea Sata-nengan, gradiente indartsuak.
- Ego indartsuak dituzten gerra/heroiak eta bake/santuak, ez jende arrunta.
- Bestea Gaizkia, Barbaroa, Periferia bezala ikustea, hau da, gizakia ez balitz bezala.
- Munduko espazioa era dualistan ikustea, Norbera Beste guztien aurka.
- Denbora krisira, katarsira edo apokalipsira doan zerbait bezala ulertzea.

Konbinazio zorigaiztokoan hori gida ona da Mendebalde gogorrerako, adierazpenak dituenak Hitlerren nazismoan, boltxebismo estalinista eta EABetako eta islamiar fundamentalismoetan. Ondorioak erraz ateratzen dira, bortxakeria eremu pertsonarteko eremuan eta gizarte eremuan eta gerra gizartearen artean; baita genozidioa ere (Bestearen kategoriatan araberako hilketa masiboa) baztertua eta dehumanizazioaren ondoren. Irailaren 11 eta bere ondorioak.

Eta ikuspegi baketsu baterako konbinazio zorionezkoenak:

- Kontraesanak normalak eta aldagarriak bezala ikustea, yin/yang moduan.
- Gatazken eraketari buruzko ikuspegi holistiko eta dialektikoa, orohartzailea.
- Satanik gabeko zibilizazioa, Gaizkiaren printzipiorik gabekoa.
- “Jendeak eraldatzen dituen gatazkei” buruzko istorioak jasotzen dituen zibilizazioa.
- Gizaki denak, bizitza, norberaren zati gisa ikusten duen zibilizazioa.
- Norbera-Beste dualismorik gabeko zibilizazioa.
- Denboraren kosmologia kulunkaria eta leuna duen zibilizazioa.

Konbinazio zorionezkoen hori Kristautasun-Judaismo-Islam leunean eta sekulartasunean eta emakumeen ikuspegietan topatzen dugun Mendebalde leunerako gida ona da; gainera hinduismo leunerako, erritualik gabeko budismoak; eta zibilizazio “indigena” asko eta askotarako (Polinesiako ho’o pono pono, Somaliako shir). Zibilizazio txinatar eta japoniarra hor tartean daude, ikuspegi zoritzarrekoak baitituzte besteak buruz barbaroak edo periferia bali- ra bezala. Bakearen kultura osagai leunen gainean eraikiko da.



Aurkezpena

Artikulu honek ‘bortxakeria kulturalaren’ kontzeptu bat aurkezten du, autoreak orain 20 urte aurkeztu zuen ‘bortxakeria kulturala’ kontzeptuaren jarraipen gisa har daitekeen kontzeptua (Galtung, 1969). Hemen ‘bortxakeria kulturala’ bortxakeria zuzena edo estrukturala zilegitzeko erabiltzen den kulturaren edozein atal gisa ulertzen da. Kultura baten barneko bortxakeria sinbolikoak ez du inor hiltzen edo trenkatzen bortxakeria zuzenak edo egitura baten barneko bortxakeriak egiten duen bezala. Hala ere, horietako bi zilegitzeko erabiltzen da, adibidez *Herrenvolk* edo arraza nagusiaren teorian. Hemen bortxakeria zuzena, estrukturala eta kulturalaren arteko harremanak aztertzen dira bortxakeriaren hiruki bat eta bortxakeria-mailaketaren irudi bat erabiliz; horiek kausazko hartueman ezberdinak dituzte. Bortxakeria kulturalaren adibideak adierazten dira kultura erlijioan eta ideologian, artean eta hizkuntzan, zientzia enpirikoan eta formalean sailkatuz. Ondoren bortxakeria kulturala ghandismoaren bi funtsezko osagai hauekin lotzen da, bizitzaren batasunaren ikasbidearekin eta bitartekoen eta helburuen batasunaren ikasbidearekin. Azkenik, kultura bake ikerketaren erdigune nagusi gisa kontuan hartzea bakearen bilaketan sakontze soila ez ezik, ‘kulturologia’ izeneko eta oraindik existitzen ez den ikasgai orokor baterako ekarpen posiblea ere bada.

Hitzaldi hau 1989ko martxoan Melbourneko Unibertsitateko bake ikerketa taldean, uztailean Osloko Unibertsitateko bake ikerketarako uda ikastaroetan eta Hawaiiiko Unibertsitatean, eta abuztuan Osloko Nazioarteko bake ikerketen institutuan aurkeztu zen. Partehartzaile guztiei eskerrak ematen dizkiet.

Johan Galtung Bakearen Ikerkuntzarako irakaslea da hainbat unibertsitatetan eta Transcend bakea eta garapenerako nazioarteko sarearen zuzendari. 1959an Bakearen Ikerkuntzarako Nazioarteko Institutua fundatu zuen Oslon. Haren argitalpenen artean aipagarrienak dira *Gizarte Ikerkuntzarako Teoria eta Metodoak* (1967), *Bakearen Ikerkuntzari buruzko Saioak* (6 bol., 1975-1988), *Aukera ezazu bakea* (1995) eta *Bakea Bide Baketsuez. Bakea eta gatazka, garapena eta zibilizazioa* (2003). Gernika Gogoratuzko kolaboratzailea da.

1. Definizioa

Bortxakeria kulturala' bortxakeria estrukturala edo bortxakeria zuzena zilegi edo legezta dezaketen kulturaren atalek osatzen dute, hau da, gure bizitzaren eremu sinbolikoaren atalek (erlijioa eta ideologiak, hizkuntza eta arteak, zientzia enpirikoa eta zientzia formalak —logika, matematika—).¹ Izarrak, gurutzeak, ilargi hazkorrak; ikurrinak, himnoak eta parada militarrek; buruzagiaren irudia edonon; hitzaldi eta poster sutsuak —horiek denak bururatzen zaizkigu. Hala ere, utz ditzagun adibideak laugarren atalerako eta has gaitzen analisiarekin. Goian aipatutako ezaugarriak 'kulturaren atalak' dira, ez kultura osoak. 'Hilketa norbere buruaren garapena da' oihukatuz balizko hiltzailea suspertzen ari den pertsonak frogatzen du, bai, hizkuntza euskera pentsamendu horiek adierazteko gai dela, baina ez euskera bera bortxakeriaz beteta dagoenik. Kultura osoak ezin dira bortxakeriazko kulturak bezala ezaugarritu. Horregatik, 'C kulturaren A atala bortxakeria kulturalaren adibidea da' adierazpena hobesten dugu 'C kultura bortxakeriazko kultura da' bezalako kultur estereotipoen aldean.

Bestalde, irudika daitezke kulturak, baita benetan topatu ere, zeinetan alderdi bakar bat ez ezik alderdien multzo bat ere hain bortxakeriaz betea dagoen, zabalki eta era anitzetan, kulturaren eremu guztietan, non bortxakeria kulturalaren kasuei buruz hitz egitetik bortxakeriazko kulturez hitz egitera doan urratsa onar daitekeela. Horretarako, ikerketa prozesu sistematikoa behar da. Artikulu hau prozesu horren zati bat da.

Abiapuntu bat 'bortxakeria kulturala' bere ezeztape-na ikertuz argitzea litzateke. Bortxakeriaren aurkakoa bakea bada, bake ikerketen/ikasketen gaia, orduan bortxakeria kulturalaren aurkakoa 'bake kulturala' izango litzateke, eta horrek bake zuzena eta bake estrukturala legezta edo zilegitzeko balio duten kultur-atalak adierazten ditu. Era horretako atal anitz eta askotarikoak badaude kultura batean, orduan 'bake

kultura' izenda dezakegu. Bake ikerketen eginbehar nagusi bat, eta bakearen aldeko mugimenduena oro har, bake kultura baten bilaketa amaigabe hori da —arazotsua dena, kultura hori erakunde bihurtzeko tentazioagatik, hori gainera halabeharrezko bihurtuz edonon barneratua izango delako itxaropenarekin. Eta hori bortxakeria zuzena izango litzateke jada,² kultura bat ezartzea.

Bortxakeria kulturalak eragiten du bortxakeria zuzena eta estrukturala gauza zuzen bezala agertzea, zuzenak direla sentitzea ere bai —edo gutxienez okerrak ez direla. Zientzia politikoa bi arazoen inguruan dabilen bezalaxe —boterearen erabilera eta boterearen erabileraren legeztapena—, bortxakeriari buruzko ikasketak bi arazoen inguruan dabilta: bortxakeriaren erabilera eta erabilera horren legeztapena. Mekanismo psikologikoa bar-

nerapena litzateke.³ Bortxakeria kulturalari buruzko ikasketak bortxakeria zuzenaren aplikazioa eta bortxakeria estrukturalaren egitatea legeztatzeke eta horrela gizartean onargarri bihurtzeko modua agerrarazten du. Bortxakeria kulturalaren jokabide bat ekintza baten kolore morala gorritik (okerra) berdera (zuzena) aldatzea da, edo gutxienez horira (onargarria); adibide bat honako ideia litzateke: 'herriaren aldeko hilketa zuzena, baina norberaren aldekoa okerra da'. Beste jokabide bat errealitatea iluntzea da, horrela bortxakeriazko ekintza edo egitatea ez ikustea lortuz, edo ez gutxienez bortxakeriazkoa den aldetik. Nabarmenki hori errazago egin daiteke bortxakeria era batzuekin besteekin baino; adibide bat *abortus provocatus* izango litzateke. Horregatik, bake ikasketak bortxakeriaren tipologia bat behar du, patologia osasun ikasketen aurrebal-dintza den antzera.



2. Bortxakeria zuzenaren eta estrukturalaren tipologia

Bortxakeria funtsezko giza premiei eta oro har *bizitzari* egiten zaion irain saihegarriztat hartzen dut, premien asebetetzearen maila erreala benetan lor daitekeen mailatik beheititzen duena. Bortxakeria erabiltzeko mehatxuak ere bortxakeria dira. Bortxakeria zuzena eta estrukturala funtsezko lau premiekin konbinatuz gero 1 taulako tipologia lortzen dugu. Funtsezko lau premiak —mundu zaballean zehar egindako elkarriketa ugariren emaitza—: *biziraupen premiak* (ukapena: heriotza, hilkortasuna); *ongizate premiak* (ukapena: miseria, osasun eskasa); *nortasun edo zentzu premiak* (ukapena: alienazioa); eta *askatasun premiak* (ukapena: errepresioa) (Galtung, 1980a).

Aurrekoaren emaitza bortxakeriaren zortzi moduak dira, azpimodu batzuekin, erraz identifikatzen direnak bortxakeria zuzenaren kasuan, baina ez hain erraz bortxakeria estrukturalaren kasuan (ikus 1 taula). Lehen iruzkin gisa esan daiteke 1 taula antropozentrikoa dela. Bosgarren zutabe bat gainera zatekeen hasieran gainerako Izadi guztia kontuan hartuz, giza izatearen sine qua non baldintza. ‘Oreka ekologikoa’ izan liteke ingurugiro sistemaren mantenua adierazteko maizen aurkitzen den hitza. Hori lortzen ez bada, emaitza degradazio ekologikoa, gainbehera, desoreka izango lirake. Funtsezko giza mantenturako behar den oreka ekologikoa biziraupena gehi ongizatea gehi askatasuna gehi nortasunari dagokio. Hori lortzen ez bada, emaitza giza degradazioa da. Bost osagai horien batuketak, denontzat, ‘bakea’ definitzen du.

Hala ere, ‘oreka ekologikoa’ oso kategoria zabala da, izaki bizigabeak eta bizidunak batera barnebiltzen dituenak. Bortxakeria bizitzari egindako irain gisa hartzen bada, bizidunak hartuko lituzke kontuan eta zeharka soilik bizigabeak. Gainera, galdera zail eta garrantzitsuak sortzen dira, adibidez, ‘norentzako oreka?’ Gizakiak ugal daitezten? Jarduera ekonomikoaren zein mailatan eta zenbateraino? Edo ‘ingurugi-

1 Taula. Bortxakeriaren tipologia

	Biziraupen premiak	Ongizate premiak	Nortasun premiak	Askatasun premiak
Bortxakeria zuzena	Hilketa	Trenkatzea Setioa, santzioak Miseria	Desgizarteratzea Birgizarteratzea Bigarren mailako hiritartasuna	Errepresioa Atxiloketa Egozketa
Bortxakeria estrukturala	A esplotazioa	B esplotazioa	Barneraketa Segmentazioa	Bazterketa Zatiketzea

roa' (bai hitz antropozentrikoa!) ugal dadin? Bere atal guztiak, denak berdin, zein mailatan, zein neurritan? Edo biak ugal daitezten?

Bigarrenik, goian bortxakeriaz hitz egiteko erabili diren hitz leunen mega-bertsioak kontuan hartu beharko lirakeke. 'Hilketa' daukagunean *ezabaketa*, *holokaustoa*, *genozidioa* irakurri. 'Miseria' daukagunean *holokausto isila*. 'Alienazioa' daukagunean *espirituaeren heriotza*. 'Errepresioa' daukagunean *gulag/KZ*. 'Degradazio ekologikoa' daukagunean *ekoizidioa*. Hori dena batera hartuta badaukagu 'omnizidioa'. Hitz horiek apokaliptikoa izateko ahaleginaren itxura hutsa eman lezakete, munduak hori dena azken 50 urteetan ikusi ez balu bezala, Hitlerri, Stalini, Reagani⁴ eta japoniar militarismoari⁵ estuki lotuta. Motzean, bortxakeria ikasketak, bake ikasketen ezinbesteko zati gisa, izugarrikerien erakustoki bat izan daitezke, baina ezagutu eta ulertu egin behar den errealitate bat islatzen du, patologiak egiten duten bezala.

Iruzkina batzuk orain taularen edukiaz. Bortxakeriaren lehen kategoria, hilketa, aski garbia da, trenkatzea den bezala. Biak batera hartuta 'eroriak' kategoria osatzen dute, gerra baten tamaina neurtzeko erabiltzen dena. Baina 'gerra' bortxakeria antolatua forma berezi bat besterik ez da, gutxienez egile bat duena arrunki, gobernu bat. Oso ikuspegi estua da bakea gerraren aurkakotzat hartzea, eta bake ikasketak gerra ekiditeko ikerketara murriztea, eta bereziki gerra handiak edo super-gerrak (potentzia handien edo superpotentzien arteko gerrak bezala definituta), eta are berezikiago ere super-armen murrizketa, abolizioa edo kontrolera murriztea. Bortxakeria moduen arteko elkarlotura garrantzitsuak alde batera uzten dira, bereziki bortxakeria modu bat gutxitu edo kontrolatzeko era beste baten gehitzearen edo mantentzearen kaltetan. Osasun ikasketetan 'alboko ondorioekin' gertatzen den gisara, oso garrantzitsuak dira eta erraz uzten dira alde batera. Bake ikasketek errakuntza hori saihestu beharko lukete.⁶

Trenkatzearen barne kokatzen da setioak/blokeoak (hitz klasikoak) eta santzioak (hitz modernoak) giza

premiei egiten dien iraina. Batzuentzat hori 'bortxakeria-eza' da, hilketa zuzen eta berehalakoa saihesten baita. Biktimetzat, hala ere, hilketa makala baina jakinaren gainean egindakoa esan nahi du, elikadura urria eta osasun zerbitzuen falta dela eta, lehen-lehenik ahulenengan eragiten duena, haur, atso, txiro, emakumeengan. Kausen katea luzeagoa eginez egileak bortxakeria aurrez aurre topatzeari ihes egiten dio. 'Aukera bat ere ematen die' biktimei, arrunki amore emateko aukera, askatasunaren eta nortasunaren galera esan nahi duena, bizitza eta gorputz adarrak ez galtzearen truke, bortxakeria zuzenaren azken bi moduak lehen bi moduengatik trukatu. Baina erabiltako mekanismoa bizimoduari mehatxu egitea da blokeo/boikot/santzioen bitartez. Ghandiren boikot ekonomikoak ehun britainiarrok erosteari uko egitea merkatarientzako dirua biltzearekin lotzen du, eta horrela arazoa ez du nahasten haien bizimodua mehatxatuz.

'Alienazioaren' kategoria gizarteratzearen eskutik defini daiteke; horrek kulturaren barneraketa esan nahi du. Bi alderdi ditu horrek: norberaren kulturatik desgizarteratua izatea eta beste kultura batean birgizarteratua izatea —hizkuntzen debekuekin eta inposaketarekin gertatzen den bezala—. Batak ez du bestea eskatzen. Baina sarritan agertzen dira batera bigarren mailako hiritartasunaren kategorian: talde zapalduak (ez da 'gutxiengo' bat halaberrez) kultura nagusia adierazi behar du, eta ez berea, gutxienez ez jendaurrean. Horrela, arazotsua da, noski, haur baten gizarteratze oro —senitartean, eskolan, gizartean oro har— behartze baten ondorio dela era berean, burua jatearen antzekoa dela, haurrari aukerarik ematen ez diona. Ondorioz, bortxakeriarik gabeko gizarteratzea haurrari aukera bat ematea dela ondoriozta dezakegu (egokiro), hau da, berari kultur eremu bat baino gehiago eskaintzea.

'Errepresioaren' kategoriak ere definizio bikoitza du: 'zerbaitetatik' askatasuna eta 'zerbaitetarako' askatasuna, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean⁷ dagoena, eta murrizpen historiko eta kulturalak dituen (Galtung, 1988a). Bi kategoria gaineratu dira espresuki, garrantzitsuak direlako beste bortxakeria

moduekin batera agertzen diren heinean: atxiloketa, jendea *barneratzea* esan nahi duena (espetxeak, kontzentrazio esparruak), eta egozketa, jendea *kanporatzea* esan nahi duena (erbesteratuz edo herrialdearen barneko toki urrun batetara baztertuz).

Bortxakeria estrukturalaren kategoriak eztabaidatzeko bortxakeriazko egitura baten irudia behar dugu, baita hiztegi bat ere, diskurtso bat, alderdi ezberdinak identifikatzeko eta horiek premien kategoriekin duten lotura aztertzeko. Bortxakeriazko egitura arketipikoaren erdigunea, nire ikusmoldean, esplotazioa da. Horrek hau besterik ez du esan nahi, goikoek askoz ere gehiago lortzen dutela egituraren barneko hartu-emanetan (premien diruan neurtuta) behekoek baino (Galtung, 1978, I-III). ‘Ezberdintasunean oinarritzen den trukea’ dago, eufemismo bat. Behekoak egitatean hain egoera desabantailatsuan egon daitezke, non hil egiten baitira (gosez, gaixotasunak jota): A esplotazioa. Edo inork irrika ezin dezakeen miseria egoera iraunkor batean egon daitezke, arrunki elikadura urria eta gaixotasuna barne hartuz: B esplotazioa. Hiltzeko modua ezberdina da: Hirugarren Munduan diarreatatik eta inmunoeskasiengatik; herrialde ‘garatuetan’ garaia baino lehenago iristen diren eta saihesgarriak diren eratan bihotzeko gaixotasunen eta tumore gaiztoen eskutik. Hori guztia egitura konplexuen barne eta kausen kate eta ziklo luze eta abardunen amaieran gertatzen da.

Bortxakeriazko egitura batek ez ditu soinean soilik uzten aztarnak, baita gogoan eta espirituan ere. Datuzen lau hitzok esplotazioaren atal gisa uler daitezke, edo egituraren osagai suspertzaile gisa. Kontzientzia hartzea eta mobilizazioa zailtzen dute, esplotazioaren

aurka era eragingarrian ekiteko bi baldintzak, hain zuzen. Lehenik *barneraketa* daukagu, goikoa behekoen artean nahasten delarik, eta gainera *segmentazioa*, behekoak gertakizunen ikuspuntu aski partziala jasotzen duelarik. Eta bigarrenik, *bazterketa*, behekoa kanpoan uzten duena, eta gainera *zatikatzea* ditugu, behekoak elkarrengandik baztertzen dituen. Hala ere, lau hitz horiek bortxakeria estruktural gisa ulertu beharko lirateke beren baitan, eta berezikiago errepresio estrukturalaren gai orokorraren bariazio gisa. Horiek denak agertzen dira generoaren testuinguruan —nahiz eta emakumeek ez eduki beti hilkortasun eta gaixotasun tasa handiagoa; aitzitik, gizonek baino biziraupen luzeagoa izan dezakete, generoaren araberrako abortua, haur-hilketa eta haurtzaroko lehen urteak gainditzen badituzte behinik behin. Motzean, esplotazioa eta errepresioa eskutik helduta dabilta, baina ez dira gauza bera.

Zer gertatzen da izadiaren aurkako bortxakeriarekin? Badago bortxakeria zuzena, txikitu, erre, eta abar egiten duena, gerra batean bezala. Halako bortxakeriaren forma estrukturala sotilagoa da, izadia desegiteko asmorik izan gabe azkenean hori bera lortzen duena: industria modernoaren poluzioa eta hondakinak; baso hilkorrak, ozono zuloak, berotze orokorra dakartenak. *Industria ekimenak* izadia eraldatzen du, eta desagertzen ez diren hondakinak uzten ditu, berrerabili ezin daitezkeen materialak uzten ditu; eta hori dena *mundu mailako komertzializazio* bati lotuta dago, ondorioak ikusezin bihurtzen dituena gaizkilearentzat.⁸ Bi egitura indartsu daude hor egiatan lanean, hazkuntza ekonomikoak legeztatzen dituenak. ‘Hazkuntza ekonomiko jarraikorra’ leloa bortxakeria kulturalaren beste forma bat izan daiteke.



3. Bortxakeriaren hiru modu

Iruzkin horien eskutik ‘bortxakeria’ zabalki definitu da 1 taulako moduen arabera bortxakeria zuzena eta bortxakeria estrukturala kategoria orokor edo ‘supertipoak’ bezala erabiliz. Orain ‘bortxakeria kulturala’ gehi daiteke hirugarren supertipo gisa eta bortxakeriaren hiruki (gaizto) baten hirugarren izkina gisa jar daiteke, irudi bat bailitzan. Hirukiak ‘bortxakeria zuzena’ eta ‘bortxakeria estrukturala’ baditu oinarrian, iradokitzen den irudia bi horiek legezkatzen dituen bortxakeria kulturala da. ‘Bortxakeria zuzena’ badago oinarrian, irudia bortxakeria estrukturala eta kulturala izango dira bortxakeria zuzenaren jatorri gisa. Noski, hirukia beti izango da hirukia, baina sortzen den irudia ezberdina da eta sei egoera ezberdinek (hiru goraka, hiru beheraka) istorio ezberdinak iradokitzen dituzte, eta denak aipatu beharko lirateke.

Simetriak badaude ere, funtsezko ezberdintasuna dago bortxakeriaren hiru kontzeptuen denborazko harremanean. Bortxakeria zuzena *gertakizun* bat da; bortxakeria estrukturala gorabeherak dituen *prozesu* bat da; bortxakeria kulturala *aldagaitza* da, ‘egonkorra’ (Galtung, 1977, 9. kap.), berdin dirau denbora tarte luzeetan, kulturaren funtsezko eraldaketak makalak direnez gero. Annales historia-eskola frantsesaren hitz erabilgarriek dioten bezala: ‘événements, conjoncturelle, la longue durée’ (behin-behinekua, egoeraren araberkua, denbora luzeak). Bortxakeriaren hiru moduak era ezberdinetan kokatzen dira denboran, lurrikaren teorian bezala: lurrikara gertakari gisa, plaka tektonikoen higadura-prozesu gisa eta lubakia bera egoera jarraikorrako gisa.

Horrek bortxakeriaren fenomenologiaren *bortxakeria-mailaketaren* irudia aurkezten digu (hirukiaren irudia osatuz), hipotesi ugari sortzen dituen paradigma gisa baliagarria dena. Oinarrian bortxakeria kulturalaren denborazko jario jarraikorra dago; beste biek substratu horretatik hartzen dute euren elikagaia. Hurrengo mailan bortxakeria estrukturalaren erritmoa dago.

Esplotazio ereduak eraiki, gastatu edo desegiten doaz barneraketa eta segmentazioaren laguntza babesgariarekin, eta horrek kontzientziaren eraketa eragozten du eta esplotazioaren eta errepresioaren aurka antolatzea eragozten du zatikatzearen eta bazterketaren laguntzarekin. Eta horren guztiaren gainean bortxakeria zuzenaren maila dago, besterik gabe begibistan dagoena, eta gizakiak elkarri eta beste bizidunei eta naturari oro har pairarazitako krudeltasunaren forma denak jasotzen dituena.

Orokorrean bortxakeria kulturaletik abiatuz eta bortxakeria estrukturaletik igaroz bortxakeria zuzenera doan kausazko jario bat identifika daiteke. Kulturak sermoiak egiten dizkigu, irakasten digu, suspertzen gaitu, bultzatzen gaitu eta nabartzen gaitu esplotazioa eta errepresioa berezkoak eta arruntak bezala ikusteko eta biak diren bezala ez ikusteko (bereziki esplotazioa). Orduan, leherketak sortzen dira, bortxakeria zuzena erabiltzeko ahaleginak burdin kaiolaren egituratik askatzearen (Weber, 1971), eta aurkako bortxakeria sortzen da kaiola bere horretan mantentzearen. Ohiko ekintza kriminal arrunta alde behetako ahalegina da 'ihesteko', jabetza banatzeko, berdintzeko, errebantxa lortzeko ('behekoe krimena'), edo norbaitek goian dagoen pertsona bihurtzeko edo izaten jarraitzeko egindakoa, egituratik ahal duen guztia xurgatuz ('goikoen krimena'). Biek, bortxakeria zuzenak eta estrukturalak, premien defizita sortzen dute. Hori bat batean gertatzen denean *trauma* batez hitz egin dezakegu. Talde bati gertatzen bazaio, kolektibitate bati, trauma kolektiboa dugu, subkontziente kolektiboan jalki daitekeena eta prozesu eta gertakari historiko nagusietarako ekai gordina bihur daitekeena. Oinarrian dagoen susmoa sinplea da: 'bortxakeriak bortxakeria sortzen du'. Bortxakeria premiazkoa denaren gabezia da; premien gabezia *larria* da; erreakzio bat bortxakeria zuzena da. Baina hori ez da erreakzio bakarra. Etsipen sentipen bat egon liteke, gabezia/frustrazio sindrome bat, barnean norbere buruaren aurkako eraso gisa agertzen dena eta kanpoan apatia eta erretreta gisa. Bortxakeriaren ondorioz irakiten dagoen gizarte bat eta gizarte izoztu apatiko baten arteko aukera egin ahal izanez gero, goikoek bigarrena nahi izateko joera dute. 'Gobernagarritasuna' nahiago dute 'arazoa' eta 'anarkia' baino. 'Egonkortasuna' maite dute. Izan ere, elite gobernariak aplikatzen duten bortxakeria kulturalaren forma nagusi bat errua bortxakeria estrukturalaren biktimari egozte da lehen harria botatzeagatik (ez kristalezko etxea apurtzeko, baizik burdin kaiolatik ihesteko), bera 'erasotzaile' bezala aurkeztuz. Bortxakeria estrukturalaren kategoriak halako bortxakeria kulturala argitaratu ekarri beharko luke.

Hala ere, bortxakeria mailen irudiak ez du definitzen bortxakeriaren hirukian dagoen kausazko kate bakarra. Sei norabideetan doazen lotura eta kausazko jarioak daude, eta hirurak elkartzen dituzten zikloak

edonon has daitezke. Hori hirukiaren irudiaren aldeko arrazoi ona da, hiru mailen ereduaren aldean. Afrikarrak atzematen dira, Atlantikoa zeharkatzera behartuak dira esklabo gisa lan egiteko; milioika hiltzen dira bidean —Afrikan, itsasontzietan, Ameriketan. Bortxakeria zuzen masibo hori mendeetan zehar barneraino sartzen zaigu eta bortxakeria estruktural masibo gisa jalkitzen da, zuriak goiko maisu eta beltzak beheko esklabo gisa, bortxakeria kultural masibo sortuz eta birsortuz ideia arrazisten bidez edonon. Denbora igarotzean bortxakeria zuzena ahazten da eta bi etiketa azaltzen dira, unibertsitateko testu liburuetan agertu ahal izateko moduan ahulduak: 'diskriminazioa' bortxakeria estruktural masiboaren ordeza eta 'aurreiritzia' bortxakeria kultural masiboaren ordeza. Hizkuntzaren garbiketa: hori bera bortxakeria kulturala.

Bortxakeriaren ziklo gaiztoa bortxakeria estrukturalari dagokion izkinan ere has daiteke. Gizarteko ezberdintasunak pixkanaka ezaugarri bertikalak hartzen ditu, ezberdintasunetako truke hazgarriak barne, eta gizarte egitate horiek orduan gizarte ekintzen bila dabilta beren mantenturako eta bortxakeria kulturalaren bila horiek legezatzeko —horrela teoria marxista 'materialista' (estrukturala esan nahi du) orokortuz. Edo, ziklo gaiztoa bortxakeria zuzen eta estruktural bateratuan has daiteke, talde batek bestearekin hain gaizki jokatzeko duela, non legeztapenaren beharra sentitzen baitu eta eskura ematen zaion edozein arrazoi kultural onartzen baitu. Orain dela mila urtetik gora iparreko bikingoek errusiarrak eraso, engainatu eta hil zituzten. Ez ahal da hori aski arrazoi ona errusiarrak arriskutsuak, basatiak, primitiboak direla dioen ideia formulatzeko —noizbait haiek etorri eta guk beraiei egin geniena egin dakigula esan nahi delarik?⁹ Hain da horrela, ezen Alemaniak 1940an Norvegia eraso zuenean, emaitza ofiziala errusiarrak arriskutsuak zirela izan baitzen, zeren horiek noizbait berdina egin baitzezaketen. Eta hemen daukagu ustekabeko erasoaren trauma.

Ba ahal dago maila sakonago bat, giza natura, erasorako (bortxakeria zuzena) eta menperatzeko (bortxakeria estrukturala) jarrera genetikoa edo gutxienez alde aurretiko jarrera duena? Gizakiak gai dira ziurki bortxakeria zuzen eta estrukturalerako —bake zuzen eta estrukturalerako diren bezala. Nire ikuspuntutik, hala ere, determinismo biologikoaren aurkako argumentu garrantzitsuena (zeinak giza naturan eraso eta menperatzeko grina postulatu duen —janaria eta sexuaren grinaren antzekoa—), erasoan eta menperatzean dagoen *aldakortasun* maila handia da. Jendeak janaria eta sexua ia egoera guztietan bilatzen duela aurkitzen dugu. Baina erasoak eta menperatzea izugarri aldakorrek dira testuinguruen arabera, baldintza estrukturalak eta kulturalak barne. Noski, grina hor egon daiteke, baina ez da aski indartsua egoera orotan gailentzeko. Kasu horre-

tan, bake ikertzailearen ardura egoera horiek ezagutzea litzateke, eta horiek nola bazter edo alda daitezkeen aztertzea. Nire hipotesia ‘egitura’ eta ‘kultura’ hitzek azterketa hori egokiro jaso dezaketela izango litzateke.

Ariketa taxonomiko horretatik jaso dezagun uzta garrantzitsu bat: erabil dezakegu *militarizazioaren* kontzeptua argitzeko prozesu bat den aldetik eta *militarismoa* argitzeko prozesu hari lagun egiten dion ideologia gisa. Argiki, lehen alderdi bat bortxakeria zuzenerako joera orokorra da ekintza militar erreal edo mehatxatuaren bidez, dela probokatua edo ez, dela gatazka bat konpontzeko edo hasteko. Joera horrek berekin dakar hardware eta software egokiaren produkzioa eta erabilpena. Hala ere, azalekoa litzateke militarizazioa iraganaldiko ekintza militarrek gordetzearen arabera eta gaurko produkzio eta erabilera ereduaren arabera soilik estudiatzea;¹⁰ horrek pertsonala, aurrekontuak eta armen kontrolari

buruzko konklusio errazak besterik ez lituzke eman. Belar gaiztoak ongi erazteko erroetaraino heldu behar da, kasu horretan erro estruktural eta kulturalak, hiru mailako paradigmak iradokitzen duen legez. Konkretuki, horrek esan nahi du ekintza, produkzio eta erabilera militarren gertuera birsortzeko joera luketen alderdi estruktural eta kulturalak identifikatu behar direla. Horrek barne hartuko lituzke gaztetxoak eskolan laidotzea, lehengotasuna,¹¹ langabezia eta esplotazioa orokorrean. Gainera, produkzio eta aplikazio militarren erabilera hazkuntza eta distribuzio ekonomikoa suspertzeko; arras nazionalistak, arrazistak eta sexistak¹² diren ideologiak, etab. Arreta berezia merezi du institutu eta unibertsitateko ikasgaietan eta egituraren¹³ irakaspen eta ariketa militarren atalak sartzearen eta militarismoa kultura gisa zabaltzearen arteko konbinazioak. Hala ere, egitura eta kultura ez dira kontuan hartzen arrunki ‘armen kontrolaren’ ikasketetan, biak oso gai korapilotsuak direlako. Tabu horiek apurtu egin behar dira.



4. Bortxakeria kulturalaren adibideak

Sarreran aipatutako sei kultur eremuak aipatzera gatoz orain —erlijioa eta ideologia, hizkuntza eta artea, zientzia enpirikoa eta formula—, eta eremu bakoitzeko bortxakeria kulturalaren adibide bat edo bi emango ditugu. Eskemaren logika sinplea da: osagai kulturala identifikatu, eta erakutsi nola erabil daitekeen, enpirikoki edo potentzialki, bortxakeria zuzena edo estrukturala legezatzeko.

4.1. Erlijioa

Erlijio guztietan sakratua den zerbait dago, *das Heilige*; ‘jainkoa’ dei diezaiogun. Funtsezko bereizketa egin daiteke guregandik kanpoko Jainko transzendentalararen eta gugan (agian bizitza orotan ere)¹⁴ dagoen Jainko immanentearen artean. Torah-ren Judaismoak, orain dela 4000 urte inguru sortu zenak, Jainkoa lurretik at bizi den gizonezko jainko gisa aurkezten du. Ideia oso kaltegarria: transzendentalismo kasu argi bat, metafora gisa hartuta ondorio anitz dituena, eta Mendebaldeko beste erlijio semitek jasoa, Kristautasunak eta Islamak. Guregandik at izanik Jainkoa, Jainkoa den aldetik, gainera ‘goian’ izanik (‘gure aita zeruan zaudena’), ez da saihestezina baina bai oso gertagarria zenbait jendek euren burua besteak baino hurbilago ikustea Jainkoagandik, baita besteak baino ‘garaiago’ ere. Gainera, dualista ez ezik manikeoa den Mendebaldeko tradizio orokorrean, ongia eta gaizkiaren arteko dikotomia zorrotza duena, Satan gaizto bat izan behar dugu Jainko onarekin batera simetria gordetzearren. Hemen ere errepresentazio transzentalak eta immanenteak egon daitezke: Jainkoak eta Satanek euren jendea bereganatzen edo gutxienez aukeratzen dutela, edo jainkoa ala satan —jainkoa *eta* satan ez aipatzearren— gugan daudela. Konbinazio guztiak aurkitzen dira Mendebaldeko erlijio denetan. Baina hemen arreta bertsio gogorrari ematen diogu, Jainko transzental eta Satan transzental batzueganako sinesmenari.

Nor hautatzen du Jainkoak? Ez ahal da arrazoizkoa bere irudiaren arabera hautatzen dituela onartzea, besteak Satani utziz, 2 taulan aipatzen den legez? Horrek dikotomia bikoitza ematen digu: Jainkoa, (Jainkoak) hautatuak, hautatuak ez direnak (Jainkoak, eta beraz Satanez hautatuak) eta Satan bera; hautatuak salbatu egiten dira eta Jainkoari hurbiltzen zaizkio zeruan; hautatuak ez direnak kondenatuak dira eta Satani hurbiltzen zaizkio infernua. Hala ere, zerua eta infernua lurrean birsor daitezke, gerokoaren aurrerapen edo erakusle modura. Miseria/luxua infernurako/zerurako prestaketa gisa ikus daitezke —eta bakoitzari egokitzen zaion klase soziala Jainkoaren erabaki gisa.

Jainkoaren kontzeptu immanenteak, gudan bizi biltzan, halako dikotomia jainkoaren aurkako ekintza bihurtuko luke. Jainko transzendental batekin, hala ere, hori dena esanguratsua bihurtzen da. 2 taulan zerrendatutako hiru lehen aukerak Genesian bertan agertzen dira. Azkena itun berrikoa da, sinesmen zuzena azpimarratzen baitu, ez ekintza zuzenak soilik. Besteak esklaboei buruzko erreferentzi barreiatu gisa agertzen dira, eta Jaunari jaunarena eta Zesarri zesarrena eman behar zaiola esaten denean. Jainkoagandik hurbilago omen dauden goi klaseak hiru dira: apaizgoa, Jainkoak komunikatzeko duen moduaren ulermen berezia dutelako argiki; aristokrazia, *rex gratia dei* dela eta bereziki, eta kapitalistak, arrakastatsuak badira. Behe klaseak eta txiroak ere hautatuak ziren, paradisura sartzeko lehenak bezala ere bai (mendiko sermoia), baina geroko bizitzan soilik. Seiak batera Judaismo-Kristautasun-Islam gogor bat osatzen dute, leundu daitekeena posizio batzuk utziz eta Islam, Kristautasun eta Judaismo leunago batean eraldatuz jainkoaren kontzeptu immanenteagoa baten eskutik (sufismoa, Asisiko Frantzisko, Spinoza).

2 taulako eskuineko zutabearen dauden ondorioak hautaketaren teologia ez den beste premisetatik abiatuta ere atera zitezkeen: horretarako laguntzen duten eta nahikoak diren kausak soilik postulatu dituzte taulak.

Adibide garaikide bat nahi izatekotan, Israelek palestinarrekin duen jarrera hartu gogoan. Herri hauta-

tuak agindu zaion lurra ere badu, *Eretz Yisrael*. Batek espero zezakeen moduan jokatzen dute, bortxakeria kulturalaren modu gaiztoa den hautatu izatearen nolakotasun hori 1 taulako bortxakeria zuzen eta estrukturalaren 8 moduetara egokituz. Hilketak, trenkatzeak, gabezia materialak, Zisjordaniako biztanleei bizitzeko gauza beharrezkoenak ukatuz; desgizarteratzea dago Israelgo estatu teokratikoaren barne, juduak ez direnak bigarren mailako hiritar bihurtuz; atxiloketak, banakoen egozketak eta kanporaketa masiboen mehatxu jarraikorra. Esplotazioa ere badago, gutxienez B esplotazio gisa.

Esplotazioarekin batera datozen egoera estrukturalak ere ongi garatuak daude: ahaleginak palestinarrek euren buruak berez beheko izakiak direla sinets dezaten, eta gehienez haiek bigarren mailako hiritar bihurtzeko ‘horretara ohitzearen bitartez’; beraiei jarduera ekonomikoaren atal txikiak utziz; gizarte judutik at utziz lerro berdearen kanpoan nahiz barnean, eta palestinarrekin *divide et impera* erara jokatuz (Camp David prozesuan bezala), inoiz ez herri bat balira bezala. Ez dago sarraski masiborik, ezta A moduko esplotazio masiborik ere, hirugarren munduko herrietan aurkitzen den moduan zorraren zamaren azpian (haurrak kaltetzen dituen batez ere). Bortxakeria berdintsuago dago banatua zortzi moduen aniztasun osoan zehar. Horrek esan nahi du begirada motza dutenentzat ez dagoela bortxakeria masiborik, Hitlerren eta Stalinen sarraskiekin eta Reaganen A esplotazioarekin alderatuz, eta beraz israeldarrak zein gizabidezkoak diren frogatzen da. Halako ikuspuntuak bortxakeria kulturalaren adibideak dira, mende honetan irizpide moralak nolakoak bihurtu diren erakusten dutenak.¹⁵

4.2. Ideologia

Sekularizazioaren bidez sortzen den jainko transzendentalaren eta era berean immanentearen beheakada eta agian heriotza dela eta, espero genezakeen erlijioaren ordezkoez, ideologia politikoen forman, eta jainkoaren ordezkoez, estatu modernoaren forman, funtsezko ezaugarri berdin batzuk izatea. Erlijioa eta Jainkoa agian hilda egongo dira —baina ez askoz ere ideia funtsezkoagoa: balioz beteta dauden

2 Taula. Hautatuak eta hautatuak ez direnak

Jainkoak hautatzen d(it)u	Eta Satanen esku uzten ditu	Ondorio hauekin
Gizadia	Abereak, landareak, izadia	‘Espezieismoa’, ekozidioa
Gizonak	Emakumeak	Sexismoa, sorgin-erreketa
Bere Herria	Besteak	Nazionalismoa, inperialismoa
Zuriak	Koloredunak	Arrazakeria, kolonialismoa
Goi klaseak	Behe klaseak	‘Klasismoa’, esplotazioa
Benetako fededunak	Herejeak, jentilak	‘Meritismoa’, inkisizioa

dikotomia zorrotzak. Lerroak agian ez dira gehiago Jainkoa, Hautatuak, Hautatuak ez direnak eta Satanen artean marraztuko. Modernitateak jainkoaren eta satanen arteko ezberdintasuna ukatuko luke, baina hautatuen eta hautatuak ez direnen arteko ezberdintasuna eska dezake; dei diezaiegun Norbera eta Bestea. Arketipoa: nazionalismoa, estatua izaki jainkoaren ordezkotzat.

Orduan aldapa gogor bat eraikitzen da, Norberaren balioa puztuz, goraiapatuz, eta Bestearen balioa hustuz, degradatuz. Une horretan bortxakeria estrukturalak bere lana has dezake. Bere kabuz betetzen den profetia bihurtzeko joera izango du: jendea degradatzen da esplotatua izatean, eta esplotatuak dira degradatuak, gizatasunik gabeko izaki gisa ikusten direlako. Bestea gizatasunik gabekoa ez ezik 'hori' batean bihurtzea lortzen bada, gizatasuna kenduz, edozein modutako bortxakeria zuzenerako antzokia jartzen da,¹⁶ eta gainera horren errua biktimari egotzen zaio. Hori gainera indartu egiten da ondoren, 'hori arriskutsua', 'piztia', edo 'bakteria' kategorien bidez (Hitlerrek juduak deskribatzen zituen modura); 'klase etsaia' (Stalinen 'kulaksak' deskribatzen zituen modura); 'zakur zoroa' (Reaganek Ghadafi deskribatzen zuen modura); 'kriminal maniatikoak' (Washingtongo adituek 'terroristak' deskribatzen dituzten modura). Sarraskia psikologikoki egingarria den betebeharrari bihurtzen da. SSko kideak betebeharrari dioten debozioagatik goraiapatuak izan behar diren heroi bihurtzen dira.

Erraz ikus dezakegu 2 taulako sei dimentsioak erabiliz hautatuek hautatu dirautela jainko transzendentalen beharrik gabe. Horrela, onartu egiten da gizakiak soilik direla beren buruaz hausnarketa egiteko gauza; gizonak emakumeak baino indartsuagoak/logikoagoak direla; nazio batzuk beste batzuk baino modernoagoak direla, zibilizazioaren eta prozesu historikoren bultzatzaileak; zuriak zuriak ez direnak baino azkarragoak/logikoagoak direla; 'aukera berdinen' gizarte modernoan onenak goian daudela eta, beraz, boterea eta abantailak izatea zilegi zaiela. Eta modernizazioan, garapenean, aurrerapenean sinesteko dogma jakinak apodiktikoak bailitza hartzen dira; horietan ez sinesteak sinesten ez duenari ekartzen dio kaltea, ez sinesmenari.

Idea horiek guztiak indartsuak izan dira eta dira oraindik Mendebaldeko kulturaren, nahiz eta Mendebaldeko gizonezko zuriaren jaiotzetiko gailentasuna zalantzan jarri duten emakumeen, Mendebaldeko ez diren herrien (Japoniarren arrakasta ekonomiko adibidez) eta Mendebaldeko gizartearen barneko koloredunen askapen borrokek. Estatu Batuak, munduko naziorik kristauena bera, borroka horien guda-leku nagusia izan da. Estatu Batuetako bortxakeria kulturala gutxitzea bereziki garrantzitsua da, nazio horrek besteetan duen eragina dela eta.

Zaila da hiru suposizio horiek mantentzea (denak jaiotzan bertan ezarritako ezberdintasunetan oinarrituak —generoa, arraza eta nazioa—) arrakastara zuzendutako gizarte batean. Baina gizarte moderno bat meritokrazia bat bada, orduan goikoei boterea eta abantaila ukatzea meritua bera ukatzea da. Gutxieneko 'orientazio moderno' bat ukatzea edozein sinesmeni atea irekitzea da, baita meritua dutenei boterea eta abantaila ukatzen diena ere, eta bestalde giza bizitza eta beste bizitza moduen arteko muga zehatza ukatzen duena. Motzean, hautatuak izateko tasunak hor jarraituko du denbora batean espezieismo, 'klasismo' eta 'meritismo' gisa, jainkoa eta satan alde batera utziz.

Nazionalismoaren ideologia, herri hautatuaren figuraren oinarritua eta erlijioaren edo ideologiaren bidez legezkatua, estatuaren ideologiarekin, estatismoarekin batera ulertu behar da. Gerra ondorengo japoniar konstituzioaren 9. artikulua, kultur bakea ezartzeko ahalegin motz horrek, dio: 'ez da onartzen (japoniar) estatuaren eskubidea gerra egiteko'. Argia da Japoniak eskubide hori galdu zuela eta bitartean besteek, irabazleek, gerra ondoren eskubidea izaten jarraitzen zutela, agian era indartuan gainera.

Nondik dator gerra egiteko eskubide hori? Jatorri feudalaletan, zuzenki dator *rex gratia dei* duen eskubidetik *ultima ratio regis* izateko. Orduan, estatua printzeak behar duen erakunde gisa ikus daiteke, gero eta garestiagoak diren armadak ordaintzeko beharrezko zergak jasotzearen (eta 1793tik aurrera soldadugaiak). Estatuaren egitura militarrek mantentzeko sortu zen eta ez alderantziz, Krippendorffek (1985) dioenez. Baina estatua jainkoaren ondorengoetako bat bezala ikus daiteke, bizitza ezabatzeko eskubidea jasotzen duena (exekuzioa), agian bizitza sortzeko ere bai. Batzuen ustetan estatuak bizitzaren sorkuntza kontrolatzeko eskubidea du, haurdunaren gainetik autoritatea aplikatuz.¹⁷

Konbina itzazu nazionalismoa eta Norbera-Bestea aldapa gogorra alde batetik eta boterea azkeneraino aplikatzeko eskubidea eta gainera betebeharrari duen estatismoa bestetik, eta orduan nazio-estatuaren ideologia itsusia lortzen dugu, beste ideia katastrofikoa. Orain nazioaren mesedetan hiltzen da gerran, 'nazioa' etnia berdina duten herritar oro izanik. Demokraziaren ideia berria trantsizio formularen bidez egoki daiteke, *vox populi, vox dei* bezala. Exekuzioa 'x nazioko jendearen izenean' egiten da; baina, gerra bezala, estatuak agindu behar du. Abortuari aurkakotzean agertzen den bizitzaren aldeko sentimendua amak erabakitako abortuak estatuak bizitzaren gain duen monopolioa gutxitzean oinarritzen da. Abortuaren aurkako sentimendua benetan umekiaren sakratutasunean oinarrituko balitz (*homo res sacra hominibus*), orduan bizitzaren aldeko jendeak bakezale izateko joera izango lukete; heriotza zigorraren

aurka egongo lirateke, eta erabat haserre egon behar-ko lukete Estatu Batuetan beltzen artean dagoen hilkortasun tasa handiagatik eta besteenagatik munduan zehar. Noski, bizitzaren ordeztu aukerari lehentasuna ematea beste bortxakeria kulturala da, umekiaren bizitza giza bizitza dela ukatzean oinarritua, umekia 'gauza' bat bihurtzen duena.

Batu nazio-estatuaren ideologia teologikoki oinarritzen den herri hautatuaren konplexuarekin eta antzokia prest dago hondamen baterako. Israel (Yaweh), Iran (Allah), Japonia (amateratsu-okami), Hego Afrika (holandar Jainko 'erreformatua'), Estatu Batuak (Jainko judu-kristaia) erlatiboki argiak diren kasuak dira; krisi batean edozertarako prest. Alemania nazia (Odin/Wotan Jainko nazia) kategoria berdinean zegoen. Gorbachoven Sobiet Batasuna —bere burua Leninen jarraitzaile gisa ikusten duena 61 urteko geldialdi baten ondoren— oraindik ere lanean dabil herri hautatua izateko bokazioaren barne, Historiak hautatua (letra larriz) sozialismoa lortuko duen lehen herri gisa. Eta Frantziak gailentasun konplexu berdina dauka —baina inork hautatu izanak zer bait Frantziaren gainetik dagoela esan nahiko luke, ideia onartezina dena. Frantziak bere burua hautatu zuen, *un peuple élu, mais par lui même*, 1804ean Aita Santuak Napoleon koroatu behar zuenean otutako ekintza arketipikoak adierazten duen moduan. Napoleonek koroa haren eskutik hartu zuen eta bere burua koroatu zuen.

4.3. Hizkuntza

Hizkuntza jakin batzuek —jatorri latinoak dutenak, italiara, espainiera, frantsesa eta ingeles modernoa, baina ez hizkuntza germaniarrak, alemana eta norvegiera—, emakumeak ikusezinak bihurtzen dituzte hitz berdina erabiliz gizonezko generoarentzat eta gizadi osoarentzat. Idazkera ez-sexistaren aldeko mugimendu garrantzitsua (Miller eta Smith, 1988) nahita egiten den eraldaketaren adibide ona da kulturaren bortxakeria kulturala gaintzearren. Egitekoa ezinezkoa iruditzen behar zitzaizkien hasi ziren emakume ausartei, baina jadanik fruitua ematen ari da.

Gainera, hizkuntzaren beste alderdi sotilagoak daude, zeinetan bortxakeria ez baita hain argia, baidarik inplizituagoa. Indoeuroperaren eta txinera eta japonieraren funtsezko ezaugarrien arteko alderaketak (Galtung eta Nakamura, 1983) hizkuntza indoeuroparrek ezartzen dituzten espazioaren eta denboraren zurruntasunak adierazten ditu; baita egitura logikoari dagokion zurruntasuna ere, inferentzia baliodunak lortzeko ahalbidea indartsuki azpimarratzen duena (hortik dator hain 'logikoak' izateko harrotasun Mendebaldarra); hizkuntzaren arabera esentziaren eta agerpenaren artean bereizteko joera, esentziaren hilezkortasunari eta, inplika-

zioz, agerpena besterik ez denaren ezabaketaren legeztapenari atea irekitzen diona. Hala eta guztiz ere, hori kultura sakona da, bortxakeriaren hirukiaren oinarritzko mailaren geruza sakonena. Bortxakeria zuzenarekiko eta estrukturalarekiko loturak nabarragoak dira hemen.

4.4. Artea

Utziezaduzte puntu bat aipatzen, 1967ko Europar Elkartearen ondorengo den Europar Batasunaren sorrerarako garrantzitsua den puntu bat (Galtung, 1989c, 2. kap). Nola ulertzen du Europak bere burua? Greziar mitologian 'Europari' lotzen zaion istorioa ez da oso lagungarria. Urrunago eramaten gaitu Europa ez-europar inguruaren ukapen gisa ulertzeak. Eta inguru hori Erdi Arotik Garai Modernorako igarobidearen garaian inperio otomandar itzela zen ekialdean eta hegoaldean, eta horrek Viennako harresiraino iritsi (1683), Siria eta Egipto bereganatu (1517) eta ondoren Tripolitania, Tunisia eta Algeria menperatu zituen eta Fezeko sultanerria eta Moroko soilik utzi zituen espainiar Habsburgoen esku zenbait enklabe txikirekin (horietako bi oraindik ere han daude). Ekialdekoa ez zen inguru bakarra (ez arabiarra, ez musulmana) Errusia zen, txirra, izugarria espazioan eta denboran. Lokartua, baina izugarritzkoa (Larsen, 1988, 21-23 orr.)

Europak, beraz, hegoaldeko eta hego-ekialdeko etsaiaren ukapen gisa ulertu behar zuen bere burua. Horrela, 'ekialdeko despotismoaren' metafora gartu zuen bere 'ingurua' ulertu ahal izateko; metafora hori oraindik ere oso esanguratsua da Mendebaldearen gogoan. 'Ekialdeko despotaren' jokaera tipikoak axolagabekeria eta bidegabekeria ziren. Berak hiltzen zuen, Europar printzeak bezalaxe: baina hark bere nahiaren arabera gobernatzen zuen, ez legearen arabera. Sexu kontuetan zituen aukerak (harena) Europarrek gauean neska nekazariak bortxatuz soilik zituzten. Horrelako aukera zuten kristau monogamiak zapaltzen ez zituen musulmanek. Frantziar XIX. mendean ekialdeko despotismoa sexu eta bortxakeriazko testuinguru batean errepresentatzen zuen pintura eskola bat sortu zen. Henri Regnaulten *Prozesurik gabeko exekuzioa* eta Eugene Delacroixen *Sardanapalen heriotza* dira adibide onak. Hegelek, gero Marxek kopiatua, ekialdeko (asiar) despotismoa eta produkzio modua gauza negatibo, homogeneo eta geldo gisa ulertu zituen.

Sindrome horren ondorioa da Europaren inguruko borobil erdiaren zati ez arabiarra, Errusia, ekialdeko despotismoaren arabera ikusi beharra. Tsarrak despotikoak izatea agian ezin da ukatu —baina ekialdekoak? Irudi horrek ziurrenik Europak Errusiaz eta Sobiet Batasunaz duen irudian eragin du, eta oraindik halaxe egiten du, nahita egindako gezur beltz gisa.

4.5. Zientzia enpirikoa

Bere burua jarduera ekonomikoaren zientzia gisa ulertzen duen ikasbide ekonomiko neoklasikoa bortxakeria kulturalaren adibide bat litzateke. Adam Smithen tradizioak indartsuki eragin diolarik, ekonomia neoklasikoa orain bere dotrinek ezarritako sistema enpirikoki estudiatzen du, eta bere kabuz betetzen diren profeziak errealitate enpirikoan baieztatuak aurkitzen ditu. Dogma neoklasikoaren edo jakituria arruntaren atal bat ‘abantaila konparatiboetan’ oinarritzen den merkataritza-teoria da, jatorriz David Ricardok postulatu, eta gero Heckscher eta Ohlinek eta Jan Tinbergenek garatua. Ikasbidea horrek agintzen du herri bakoitzak herri horrek produkzio faktoreen arabera abantaila duten produktuekin jokatu behar duela mundu mailako merkatuan.

Praktikan horrek esan nahi du lehengai eta prestakuntzarik gabeko langile anitz dituzten herriek lehengaiak atera behar dituztela, eta dirua eta teknologia, langile prestatuak eta zientzialariak dituzten herriek lehengai prozesatu behar dutela. Eta horrela Portugalek bere ehun industria utzi zuen eta erdi mailako ardoglea bihurtu zen, eta bitartean Ingalaterrak behar zuen erroka jaso zuen bere gaitasun industrialak oraindik gehiago garatzeko. Ikasbide horren ondorioak edonork ikus ditzake munduko egungo lan-banaketa bertikalean. Bortxakeria estrukturala edonon (Galtung, 1971; 1988b), herrien artean eta herrien barne.

Horregatik, abantaila konparatiboen ikasbideak munduaren banaketa zakar baten legeztapenerako balio du, herriek beren esportazio produktuetan erabilitako prozesu mailaren arabera. Hori produkzio prozesuan jasotzen duten suspertze mailaren proportzioan doanez, abantaila konparatiboen printzipioak herriak sententziazten ditu produkzio faktorearen profilak arrazoi geografikoengatik eta historikoengatik jarri dituen lekuan geratzera. Noski, ez dago legerik, ezta lege enpirikorik ere, herriei beren produkzio profila hobetzea debekatzeko diena —Kaname Akamatsu japoniar ekonomistak adierazitako ideia funtsezkoa.¹⁸ Baina hori lortzea ez da erraza, berehalako irabaziak egin badaitezke status quo-a aldatu gabe, lehengai edo salgaien jabe direnen mesedetan. Eta horrela abantaila konparatiboen ‘legeak’ egituraren aldetik onartezina den status quo bat legeztatzen du. Motzean, ‘lege’ hori bortxakeria kulturalaren adibide bat da, ekonomiaren muinean bertan txertatua dagoena.

4.6. Zientzia formalak

Baina hori ezin da esan matematikaz ziurki? Hori ez da, ordea, hain argia. Matematika funtsezko erregela

bat duen joko formal gisa ikusten bada, alegia, T teorema eta bere ezeztapenak, $\neg T$, ezin badute biak balio, orduan bortxakeriazko ondorioak sor daitezke. Logika matematikoa logika balioanizduna aztertzen duenean ere erabiltzen den tresna bi balioko logika da, balio duena eta balio ez duenaren arteko muga zorrotza duena, *tertium non datur*. Eta erraz ikusten da horrela izan behar duela, inferentzia baita matematikaren eraikinaren lokailua, *modus ponens* eta *modus tollens* izanik funtsezko prozedurak. Ez dago inferentziarik egiterik aurrekariak edo inferentziak egia-balio anbiguoak baditu (Galtung, 1988c, 4. kap., bereziki 4.4).

Horrek esan nahi du matematikak pentsatzeko modu berezi batera behartzen gaituela, eremu pertsonal, sozial eta mundialetan ematen den zuri-beltz pentsamenduarekin eta polarizazioarekin bat datorrena. Pentsamendu matematikoaren ‘edo bat edo bestea’ izaerak bera joko erakargarria bihurtzen du, baina ez da inolaz ere egokia gizakiaren, gizartearen eta munduaren errealitate oso dialektikoari aplikatzeko. Eta *adequatio* (egokitasuna) da kulturaren, espazio sinbolikoaren, funtsezko baldintza, baldin eta gidatu behar bagaitu bortxakeria gutxiago duen balizko errealitate bat ikusi ahal izatera.

4.7. Kosmologia

Bortxakeria kulturaletik bortxakeriazko kulturara doan igarobidearen arazora itzultzen gara. Aitzinean lehen atalean aipatzen genuen bezala, halako epaiekta orokorrak lor genitzakeen kulturaren alderdi anitz eta ezberdinak identifikatzearen bidez, pentsamendu erlijioso eta ideologikoan, hizkuntzan eta artean, zientzia enpirikoan eta formalean; horiek denak bortxakeria legeztatzeako balio dute. Hala ere, badago beste hurbilbide bat: kultura baten substratua aztertzea ‘kultura sakonaren’ bila; horietako asko egon daitezke.¹⁹ Erroen erroak ikusiko genituzke: kulturaren osagaiak sortzen dituen eta horien bitartez birproduzitzen den kulturaren kodigo genetikoak. Hori oso espekulatiboa bihurtzea ez da oso arazotsua; zientziaren izaerari dagokio geruza sakonagoak postulatzeko, inplikazioak bakantzea, teoriaren erdigune gogorra proban jartzea forma ezberdinetako izkinen inguruan.

Kosmologiaren kontzeptua errealitateari buruzko onarpen sakonago horiek jasotzeko pentsatua dago,²⁰ arrunta eta naturala dena definituz. Ez da erraza subkontziente kolektiboan sakontasun maila horretan dauden suposizioak azalaraztea, are gutxiago eraztea. Eta hala ere, maila horretan erakusten ditu Mendebaldeko kulturak hainbat bortxakeriazko ezaugarri, non kultura osoak bortxakeriazkoa baitirudi. Hautaketa dago, erdigune-periferia aldapak daude. Larrialdiaren sindromea dago, *apocalypse now!*, bake zuzenaren eta estrukturalaren eraiketa eta aplikazio makala eta lasaia zailtzen duena. Pentsamendu ato-

mistikoa, dikotomikoa dago, bitartekoen eta helburuen batasunaren aurka ekiten duten kate deduktiboak dituena. Harrokeria dago naturaren aurrean, bizitzaren batasunari aurka egiten diona. Gizakiak banakotzeko eta mailakatzeko joera indartsua dago, gizakiaren batasuna hausten duena. Eta Jainko transzendentel, absolutua dago, ondorengo ikaragarriak dituena. Kultura osoak bortxakeria sortzeko gaitasun izugarria du, kultur maila ikusgarrienean adierazten dena eta legeztatu ezin daitekeena legeztatzeko erabil daitekeena. Mendebaldean bakea egoteak, jatorria Mendebaldean bertan izanik batzutan, mirari bat

dirudi, ziurrenik jatorria bere ezaugarri leunenetan duen miraria.

Pentsaera horrek erraz eramaten gaituela etsipen sentimendu batera, eta hori da arazoa. Kode genetiko kulturala aldatzeak kode genetiko biologikoa aldatzea bezain zaila dirudi. Eta gainera, posible balitz, ‘kultur ingeniari-tza’ ingeniari-tza genetikoa den bezain bortxakeria modu arazotsua izan liteke. ‘Halabehararen’ eskuetan utzi behar ahal da —hots, boterea eta abantaila duten eskuetan?²¹ Hori etorkizuneko bake ikerketaren gai oso zail eta garrantzitsua da.



5. Gandhi eta bortxakeria kulturala

Zer zuen esateko Ghandi berak arazo zail horiei buruz, bortxakeria zuzenari eta estrukturalari alternatibak bilatzeko asmoa zuenez? Bere erantzuna bi axioma birproduzitzea zen, bere eku-menismotik abiatuta, zentzu batean ghandismoa laburbiltzen dutenak: *bizitzaren batasuna*, eta *bitarteko eta helburuen batasuna*. Lehena bigarrenetik ateratzen da, onartzen bada bizitza, eta bereziki giza bizitza, ezin dela erabili helburu baterako bitarteko gisa. Helburua biziraupena bada, orduan bitartekoak bizitzaren suspertzaile izan behar du. Baina nola ulertzen dugu ‘batasuna’? Interpretazio zentzudun bat, aurreko ataletan erabilitako ideiak erabiltzen dituenak, hurbiltasunaren arabera litzateke, banaketaren aurkakoa. Gure gogoaren munduan bizitzaren forma guztiak, bereziki giza bizitzak, hurbiltasuna dastatu beharko luke, eta ez bananduak izan Norbera-Besteak aldapa gogorreatik, lubakiak sortzen dituenak *gizarte-eremuan*. Kulturaren erdigune gogorretik abiatzen den legezkatze oro (adibidez, herri hautatua izateko bokazioa) ukatu beharko litzateke beste axioma garaiago, ‘gogorrago’ horrekin talka egitean.

Bitartekoen eta helburuen batasuna beste gogo-osagaien hurbilketa gisa uler dezakegu, hala nola, ekin-tzen eta ekintzok eragindako egitateen arteko hurbilketa. Ez lirateke bananduta gorde beharko kausazko kate luzeen bidez, lubakiak egiten dituztenak *gizartedenboran*. Altxamendura edo iraultzara, industrian edo industria proletalgoan inbertitzera garamatzaten gizarte hurrenkera luzeak hastea, ez da nahikoa ona. Bitartekoak beren baitan izan behar dute onak, ez urrutiko helburuen arabera, bidearen bukaeran —industrialismoaren aldarean ‘hazkuntza/kapitalismoa’ eta ‘iraultza/sozialismoaren’ izenean sakrifikatu diren guztiak lekuko dira. Egiaztapen enpirikotik abiatzen den legezkatzea, ‘arrakastatsua da’, ukatu egiten da axioma garaiago, ‘gogorrago’ horrekin talka egiten duenean.

Norbera-Besteak aldapa oro erabil daiteke balioen mailaketaren barne behean daudenen aurkako bortxake-

ria legezatzeko. Kausazko kate oro erabil daiteke bortxakeriazko bitartekoak legezatzeko bortxakeriarik gabeko helburuak lortzearen. Ghandi berdin izango litzateke eszeptikoa iraultza eta lan gogorraren ideia marxisten aurka, gizaldi bat edo bi sakrifikatzeko etorkizuneko ustezko zoriontasun baten mesedetan, eta lan gogorra eta enpresa espirituaren ideia liberal/kontserbadoreen aurka, gizarte klase bat edo bi sakrifikatzeko goiko klaseen gaurko zorionaren mesedetan.

Ghandik bi axioma horietatik ateratako konklusioa bizitza orenen izaera sakratuaren errespetua (hortik begetarianismoa) eta 'bitartekoen ardura hartu eta helburuek beren buruaren ardura hartuko dute' erregelaren onarpena da. Horrenbestez, bizitzaren

batasunaren ikasbidea asko ezberdintzen da oreka ekologikoaren ikasbidetik, bizitza oro hobetzea esan nahi baitu, ez giza bizitza soilik; eta giza bizitza oro, ez erlijio edo ideologiaren batek (itxuragabetua edo gaizkiulertua) aukeratutako kategoriak soilik. Eta bitarteko eta helburuen arteko batasunak sinkroniaren ikasbide batera garamatza, arazo guztietan aldi batera lan egitera deitzen duena²² eta ez pausu handi baten diakroniara, indar higigarria abiarazten duela koan. Arketipoa: gurpil budista, non pentsamendua ren, hizkuntzaren eta ekintzaren osagaiak lehentasun maila berbera izateko joera duten; ez piramide kristaua, batzuetan (adibidez, fedea ekintzen aurka) besteetan baino arreta gehiago jartzen duena (Galtung, 1988, 1.1 kap., bereziki 25 or.h.).



6. Amaiera

Bortxakeriaren hirukian (zuzena-estrukturala-kulturala) bortxakeria edozein izkinetan has daiteke eta errazki zabaltzen da beste izkinetara. Bortxakeriazko egitura instituzionalizatua eta bortxakeriazko kultura barneratua dagoenean, bortxakeria zuzenak ere instituzionalizatzeko joera du, errepikakorra, errituala bihurtzekoa, vendetta batean bezala. Bortxakeriaren hiruki-itxurazko sindromea alderatu egin beharko litzateke buruan bakearen hiruki-itxurazko sindromearekin, bertan bake kulturalak alderdi ezberdinen arteko harreman sinbiotiko eta zuzena duen bake estrukturala eta lankidetzaz, laguntasun- eta maitasun-ekintza duen bake zuzena sortzen baitu. Hiruki eraginkorra litzateke, ez gaiztoa, baizik bere burua indartuko lukeena. Hiruki eraginkor hori hiru izkinetan aldi berean lan eginez lortuko litzateke, eta ez batean sortutako funtsezko aldaketak automatikoki besteetan aldaketak sortuko dituela suposatuz.

diziplina berriei egiten zaien gonbidapena da bakearen bilaketan bat egiteko eta eremu bertan dabilzan ikertzaileei egiten zaiena eraberritzeko —pixka bat bada ere—.

Horrela eginez gero, bake ikerketak agian ekarpen bat egin ahal izango luke zientzia ekimen nagusi bat oinarritzeko, gaur oraindik nabarmenki ekimen akademikoen artean agertzen ez dena, *giza kulturaren zientzia*, 'kulturologia'. Gaur, eremu hori erdibitua

dago giza zientzien (goi zibilizazioentzat) eta kultur antropologiaren artean (behe zibilizazioentzat); filosofiak, ideien historiak eta teologiak tarteko zulo batzuk betetzen dituzte. Bortxakeria kulturala horretan guztian zehar zabaltzen da, bortxakeria estrukturala gizarte zientzien zehar zabaltzen den bezala. Bake ikerketak hainbeste ikasi behar du, hainbeste hartu, jaso behar du. Agian, bere garaian ekarpenak egingo ditugu: aniztasuna, sinbiosia eta berdintasuna lortzeko asmoarekin.



Oharrak

1. Beraz, 'bortxakeria kulturalak' aldizkari horretan orain dela 20 urte (Galtung, 1969) aurreratu genuen 'bortxakeria estrukturalaren' bide berdina hartzen du. Ideia hori gehiago garatzeko kritika eta ahalegin garaikide oso erai-kitzaile baterako, ikusi Roth (1988). Antzeko kontzeptua Saner-ek aipatzen du (1982).
2. Ahalegin anitz egin da 'gizon berria' (eta emakumea?) sortzeko. Mendebaldean kristautasunaren adar berri bakoitza ahalegin bat izan da, baita humanismoa ere, eta berdin sozialismoa. Baina edozein kultura besteei gainezartzea bortxakeria zuzena da (egileak bilatua), gehiengotan kultura batetik desgizarteratzea eta bestean birgizarteratzea esan nahi duena —defendatzerik ez duen haurraren lehen gizarteratzea barne—. Hala eta guztiz ere, kultura gizakiarentzat *conditio sine qua non* bada, gu batere gabe jaino gara (aldez aurretiko joerak soilik ditugu), eta gainezartzea bortxakeria bada, orduan hezkuntzaren funtsezko arazoa topatzen dugu: aditz trantsitiboa edo intrantsitiboa al da 'hezi'? Biak, noski, hermeneutikoki lotuta. Heziketa bake-tsua eta gizarteratzeak kultura anitzekin harremana ekarri beharko luke eta gero elkarrizketa bat, ondoren argudiatuko dugun moduan. Ez kristautasuna, ezta humanismoa ere ez dira onak horretan; izan ere, oraindik ez dakigu *nola* egiten den hori. Hemen bortxakeria kulturala aipatzen denean ez da esan nahi norbaiti kultura bat inposatzea, dela zuzenki edo estrukturaliki. Hala ere, inposaketa hori legezkatzen duten kulturaren atalek, adibidez kultura 'garaia goa' delako (monoteista, modernoa, zientifikoa, etab.), kulturaren barnean txertatuta dagoen bortxakeria adieraziko lukete, beste hitzetan, bortxakeria kulturala. 'Bortxakeriaren legeztapen enpirikoa edo balizkoa' bortxakeria kulturalerako giltza da.
3. Guk, orduan, kontrolerako mekanismoak sistematikoki sailkatzen ditugu barnekoen eta kanpokoan artean, positiboan eta negatiboan artean, eta 'barnekoa, bai positiboa, baita negatiboa ere', kontzientzia ona eta txarra gisa identifikatuz; kanpoko positiboki sari bezala eta negatiboki zigor bezala. 'Barnerapena' pertsonaren sisteman erro sakonak dituen kontzientzia da; 'instituzionalizazioa' gizar-te sisteman erro sakonak dituen sari/zigorra da. Biak ekin-tzak 'berez, arrunki, nahita' gertatzeko balio dute. Gizarte zientziaren hastapen horiek agian balioko dute bortxakeria kulturala eta estrukturala gizarte zientzien teorien erai-keta orokorraren erdigunean kokatzeko.

4. Begira Galtung (1984), hiru sistemak alderatzeko saioa nahi baduzu (ez hitlerismoa eta estalinismoa soilik, orain *glasnot* errebisionismoan arrunta bihurtu den gisara).
5. Antzekotasun handiak daude *shinto* barnean hautazkotasunaren inguruan. Begira Ienagaren analisisa (1978), bereziki 154 orrian *hakko ichiu* kontzeptua dela eta (munduko zortzi izkinak teilatuta beraren azpian).
6. Hurbilbide erraza 'zehir-ondorio' denak beste ikasgaien ataurrean uztea da, hauek haiek kontzeptualki, teoretikoki eta praktikan garbi ditzatela eskatuz, ekonomistek egiten duten gisara.
7. Dokumentua 1948ko Deklarazio unibertsalaz, 1966ko bi konbenioez eta aukerako protokolo batez osatzen da. Gutunak ez du arandik lortu merezi duen lekua, besteak beste AEBek ez dituelako konbenioak berretsi.
8. Horregatik maila horretan egin behar zaio aurka ingurumenaren hondaketari desindustrializazio eta deskomertzializazio prozesuen bidez, eta ez poluzio edo zabor-pilaketa modu bat beste batez ordezkatzeari horrelako arazo orokorretan zatikako hurbilbideak erabiliz.
9. Aitzitik, ia sinestezina da zein baketsua izan den iparreko muga herri hain handi eta hain txiki baten artean, batzuen ustez handia edozein 'botere hutsune' betetzeko irrikan zegoen arren.
10. Hau, noski, Estokolmoko Nazioarteko Bake Ikerketen Institutuak hartu duen hurbilbidea da *SIPRI Yearbook* eta beste argitalpenetan; oso erabilgarria lehen mailako dokumentazio gisa, baina ez du nahikoa sakontzen irudika edo aplikatu daitezkeen edozein aurkako neurri errealean bila.
11. Faktore horiek maiz oso garrantzitsutzat jo dira japoniarren erasokortasuna esplikatzen, adibidez, Benedikt (1972). Ienagak (1978) ere aipatzen ditu faktoreok.
12. Tranbia Tokioko Jauregi inperialaren aurretik igarotzen zenean bidaiariak altxa egiten ziren eta burua makurtzen zuten enperadoreari begira. Eta Yasukuni *shinto* tenplua leku garrantzitsua da eraketa-lan nazional eta nazionalistarentzat Japonian. Bere alderdiak 1989ko uztailaren 23an hauteskundeak galdu zituenean, LDPko lehen ministro berriak, Kaifuk, ez zuen tenplua bisitatu 1945eko abuztuaren 15eko kapitulazioaren urteurrenean, ongi baitzekien haizea ezkerretik zebilela.
13. Ezagutzen ditudan adibideen artean AEBetako Reserve Officers Training Corps (ROTC) delakoa da armada eta unibertsitatearen integrazio hain sakonaren adibide argiena, ikasleak beken bitartez erostea eta propaganda militaristez beteak dauden eskolak zilegiztat baititu.
14. Garrantzi berdina duen beste bereizketa teologikoa: jatorrizko bekatuarekin jaiotzearen (kristau batzuek esango luketen eran), jatorrizko graziaekin (besteek esan luke- ten eran), biekin (budismo indiarren karma?), eta bat ere ez (jarrera ateista). Jainko transzendentala eta jatorrizko bekatuaren arteko konbinazioak jendearen kontrolerako ondorio izugarriak ditu, Luterok ederki ulertu zuen bezala.
15. Begira Galtung (1989a) xehetasun gehiago jasotzeko. Begira Weber (1971) hautazkotasunaren azterketa bikaina nahi baduzu.
16. Nobela distopiko erakargarri eta beldurgarri baten gai nagusia da (Atwood, 1987). Carolyn DiPalmeri eskertzen diot erreferentzia hau.
17. Nire jarrera, ez oso orijinala, hau da: umekia bizia da, eta beraz, sakratua da. Edozer gauza egin beharko litzateke bizitza apurtuko duen egoera bat saihesteko, nahita edo nahi gabe. Alternatiba denak saiatu ondoren azken erabakia bizitza hori sortu zutenen eskuetan dago, arrunki gizon bat eta emakume bat, emakumeak beto indarra izanik eta gizonak kontsultatua izateko eskubidea.
18. Bere funtsezko ideia hau da: pilatzen den gainerako balio guztia produkzio faktoreak hobetzeko erabiltzea, tranpatik ateratzeko, ez produkzio faktoreen jabeek luxuzko produktuak kontsumitzea. Simplea eta zuhurra, hori izan zen Japoniak egin zuena, baina zaila litzateke gaur Japoniak hori beste askok egitea nahi izatea.
19. Jarrera postestruturalista garrantzitsua: sakonera joatea, azalaren azpira, ez da aniztasunetik bakuntasunera igarobidea. 'Mendebalder kultura sakona', adibidez, ez da adiera bakarreko ideia. Horregatik, esango nuke kristautasuna, adibidez, bi eratara irakur daitekeela gutxienez, irakurketa gogorra (transzendentalagoa, jatorrizko bekatuaren arabera) eta irakurketa leuna (immanentea, jatorrizko graziaaren arabera). Beste batzuek kultura sakonaren aniztasun konplexuagoa ikusten dute. Batetik besterako urratsa beharrezko baldintza da.
20. Kosmologia, orduan, honela definitzen da narraski: 'zibilizazio baten kultur suposizio sakonak, normala eta naturala dena definitzen duten egitura sakonen oinarrian dauden suposizio orokorrak barne'.
21. Noiz dauka kulturak, bereziki kultura sakonak, nahikoa malgutasun (Scholem) forma hartu eta forma berritzeko? Krisialdian? Trauma sakon bat jasan denean, besteei trauma sakonak jasanarazteko trauma barne? Gutxi dakigu horretaz, auzi garrantzitsuak direla besterik ez.
22. Begira Ghandiren bizitza: bere asmo politikoa harrigarria da —*swaraj*; *satyagraha* eta *sarvodaya* arakatzea; Hego Afrikako indiarren goraldea, *harijans*-ena Indian, emakumeena; komunitate hindu eta musulmanen arteko gatazka. Ghandik ez zuen inoiz esan: horietako arazo bakar bati eskainiko diot nire arreta, eta gero besteak etorriko dira.



Bibliografia

ATWOOD, Margaret, 1987. *The Handmaid's Tale*. New York, Ballantine.

BENEDICT, Ruth, 1972. *The Chrysanthemum and the Sword*. Lon-


— eta Fumiko NISHIMURA, 1983. 'Structure, Culture and Languages: An Essay Comparing the Indo-European, Chinese and Japanese Languages'. *Social Science Information*, 22 atala, 6. zenb., abendua, 895-925 orri.

IENAGA, Saburo, 1978. *The Pacific War, 1931-1945*. Nueva York. Random House.

KRIPPENDORFF, Ekkehart, 1985. *Staat und Krieg. Die historische Logik politischer Unvernunft*


Gernika Sarea Bilduma

Liburuak





Maria Jesus Cava Mesa (Maria Silvestre eta Javier Arranzen lankidetzeta), *Memoria colectiva del bombardeo de Gernika*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1996, 312 or., 15,03 euro
ISBN: 84-88949-13-8
Erref.: RG1

John Paul Lederach, *Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998, 200 or., 13,22 euro
ISBN: 84-88949-21-9
Erref.: RG2




Michael Kasper, *Gernika und Deutschland. Geschichte einer Versöhnung*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998, 108 or., 7,21 euro
ISBN: 84-88949-26-X
Erref.: RG3

Michael Kasper, *Gernika y Alemania. Historia de una reconciliación*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998, 104 or., 7,21 euro
ISBN: 84-88949-27-8
Erref.: RG4



Mari Fitzduff, *Más allá de la violencia. Procesos de resolución de conflicto en Irlanda del Norte*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998, 172 or., 11,42 euro
ISBN: 84-88949-28-6
Erref.: RG5



Johan Galtung, *Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998, 132 or., 9,02 euro
ISBN: 84-88949-35-9
Erref.: RG6


Johan Galtung, *Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 2003, 360 or., 24,00 euro
ISBN: 84-88949-52-9
Erref.: RG7



Bideoak




La huella humana. El bombardeo de Gernika, Gernika Gogoratuz, 1998
Iraupena: 45 min
PSP: 16,23 euro



Giza aztarna. Gernikako bombardaketa, Gernika Gogoratuz, 1998
Iraupena: 45 min
PSP: 16,23 euro



The mark of men. The bombing of Gernika, Gernika Gogoratuz, 1998
Iraupena: 45 min
PSP: 16,23 euro



Menschliche Spuren. Die Bombardierung von Gernika, Gernika Gogoratuz, 1998
Iraupena: 45 min
PSP: 16,23 euro

Txostenak



1. Adam Curle, *El campo y los dilemas de los estudios por la paz*, 1994, 16 or. Agortua.
2. John Paul Lederach, *Un marco englobador de la transformación de conflictos sociales crónicos*, 1994, 19 or. Agortua.
3. Gernika Gogoratuz, *Bibliografía de textos en castellano, sobre paz, análisis y transformación de conflictos y educación por la paz*, 1994, 68 or. Agortua.
4. Christopher R. Mitchell, *El proceso y las fases de la mediación*, 1994, 20 or. Agortua.
5. Christopher Moore, *Negociación y mediación*, 1994, 16 or. Agortua.
6. Gurutz Jáuregui, *La autodeterminación en la perspectiva del siglo XXI*, 1994, 20 or. Agortua.
7. Gernika Gogoratuz, *Gernika Gogoratuz se presenta*, 1995, 24 or. Agortua.
8. John Paul Lederach, *Mediación*, 1996, 16 or. Agortua.
9. Christopher R. Mitchell, *Evitando daños: reflexiones sobre la "situación de madurez" en un conflicto*, 1996, 22 or., 1,80 euro.
10. Christopher R. Mitchell, *Conflictos intratables: claves de tratamiento*, 1997, 21 or., 1,80 euro.
Ingelerazko argitalpena: Christopher R. Mitchell, *Intractable Conflicts: Keys to Treatment*, 1997, 21 or., 1,80 euro.
11. Clem McCartney (bil.), *Haciendo balance. El proceso de paz de Irlanda del Norte*, 2001, 100 or., 9,02 euro.
12. Sir Kenneth Bloomfield, *Las recordaremos. Informe de Sir Kenneth Bloomfield, Comisionado sobre Víctimas de Irlanda del Norte*, 2001, 56 or., 6,01 euro.
13. Victim Support Northern Ireland y Northern Ireland Association for the Care and Resettlement of Offenders, *Toda verdad es amarga. Informe de la visita a Irlanda del Norte del doctor Alex Boraine, vicepresidente de la Comisión de la Verdad y la Reconciliación de Sudáfrica*, 2001, 36 or., 4,51 euro.
14. Johan Galtung, *Violencia cultural*, 2003, 32 or., 4,00 euro.
Euskerazko argitalpena: Johan Galtung, *Bortxakeria kulturala*, 2003, 32 or., 4,00 euro.

Bildumatik kanpo

Riitta Wahlström, *Imagen de enemigo. Educación de paz/Etsai Irudia. Bakearen Aldeko Heziketa* (2 Buletina), 1990. Agortua.

Working Papers Munduan Bilduma

Cooperación Internacional Descentralizada/Nazioarteko Lankidetzeta Deszentralizatua

Felipe A. González, Noé Cornago eta Gernika Gogoratuz (bil.), *XII Jornadas Internacionales de Cultura y Paz de Gernika. Respaldo a consensos = Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko XII. Jardunaldiak. Adostasuna Lagunduz*, 2003, 212 or., 12,00 euro.

Johan Galtung, *Bortxakeriarik gabeko gatazka eraldaketa*, 2003, 24 or., 6,00 euro.

Titulu berriak

Catherine Barnes (bil.), *Haciendo propio el proceso. La participación ciudadana en los procesos de paz*.

Eskariak egiteko buletina

Igorlearen datuak

Abizenak _____ Izena _____
Lanbidea _____ NAN _____
Erakundea _____
Helbidea _____
Herria _____ PK _____ Herrialdea _____
Telefonoa _____ Faxa _____
Posta elektronikoa _____

Nahi ditudan liburuak

Liburuak

- Memoria colectiva del bombardeo de Gernika
- Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas
- Gernika und Deutschland. Geschichte einer Versöhnung
- Gernika y Alemania. Historia de una reconciliación
- Más allá de la violencia. Procesos de resolución de conflicto en Irlanda del Norte
- Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución
- Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización

Bideoak

- La huella humana. El bombardeo de Gernika
- Giza aztarna. Gernikako bonbardaketa
- The mark of men. The bombing of Gernika
- Menschliche Spuren. Die Bombardierung von Gernika

Txostenak

Honako aldeak jaso nahi ditut: _____

Ordaintzeko aukera

- Bankuko helbideratzea (osatu erantsitako buletina).
- Postazko ordaintzetaz. Gernika Gogoratuz _____ zkia. _____ honenbesteko eurotan (argi eta garbi adierazi igorlearen datuak).
- Eskaria jasotzerakoan ordaindu.
- Transferentziaz (Gernika Gogoratuzen izenean) Kontu Korrontea: Euskadiko Kutxako 3035/0022/41/0220044387 zenbakira.
- VISA Txartelaz MasterCard Txartelaz
_____/_____/_____/_____ Eskaintzaren azken eguna: __/__/__
Gernika Gogoratuzek nire baimena dauka adierazitako txartelean egindako eskariaren zenbatekoa kobratzeko.

Sinadura

Egindako eskariaren zenbatekoan dagozkion igortze gastuak gehitu behar dira aukera guztietan.

Bankutik helbideratzeko buletina

Eskertuko nizuke nire kontu korrontearen libretan/kontuan Gernika Gogoratuzek igorriko dizkizuen ordainagi-riak ordainduko bazenituzte, eskatutako Gernika Sarea Bildumako materialen ordaintzeta gauzatu asmoz.

Izena eta abizenak _____
Erakundea _____
Bankua/Aurrezki Kutxa _____
Libreta zenbakia edo Kontu Korrontea: ____/____/____/_____
erakundea bulegoa kontrola libreta edo K/K zkia.

(Bankuaren bitartezko gestioa errazteko, otoi eskatzen dizugu kutxatila bakoitza dagokion zenbaki zuzenarekin betetzea. Galde iezaiozu zure bankuari inolako zalantzarik izatekotan).

Bankuaren helbidea _____
Herria _____ PK _____ Herrialdea _____
Eguna _____
Sinadura _____



GERNIKA GOGORATUZ

Gernika Gogoratuz 1987an, Gernikako Bonbardaketaren 50. urteurrenaren oroitzapenean, Eusko Legebiltzarraren aho-bateko erabakiz sortutako Bakearen eta Gatazken Eraldakuntzarako Ikerkuntza Zentroa da. 1995. urtetik **Gernika Gogoratuz** Fundazioak babestuta dago eta izen bera duen Elkarte batez osatua dago, azken elkarte hau Zentroaren kudeaketaz eta independentziaz arduratzen da. Zentroaren jarduera irabazi-asmorik gabea da.

Gernika Gogoratuzek Gernikako sinboloa zaintzearen eginkizuna dauka bai iraganari begira, haren oroitzapenari eutsiz, bai etorkizunari begira, berradiskidetasun horizonteari eutsiz; iraganari dagokionez historia gogoratu eta omenduz, eta etorkizunari dagokionez, gogoeta zientifikoaren bidetik, bake askatzaile, bidezko eta berradiskidetzailan ekarpenak eginez. Honako betekizunak ditu:

- Bitartekaritza lanak bere gain hartu eta kudeatzen ditu gatazka sozial eta politikoetan. Hasieratik bideratu ditu bitartekaritza lanak euskal gatazkan.
- 1990tik urtero antolatzen ditu Gernika-Lumoko Udalarekin elkarlanean Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldiak.
- Euskal Herrian eta zenbait herrialdeetan gatazken tratamenduari, negoziaketari, bitartekaritzari eta berradiskidetasunari buruzko mintegiak antolatzen ditu.
- Bakearen Hezkuntzan gogoeta egin eta trebatzeko jarraibide propioa prestatzen ari da.
- Gatazken eraldakuntza, bitartekaritza, negoziazioa, dokumentazio bibliografiko eta berradiskidetasun prozesuei buruzko lan monografikoak argitaratzen ditu.
- Berradiskidetasun horizontea helburu duen bakea eta gatazken eraldakuntzari buruzko informatizatutako dokumentazio zentroa dauka, kontsulta eta mailegu zerbitzuarekin, eta informazioaren aukerazko hedapen zerbitzua. Praktikak egiteko aukera eskaintzen du.
- 1997an Gernika Sarea sortu zuen. Berradiskidetasuna helburu duten Prozesuetarako Nazioarteko Laguntza Sarea dena.

GERNIKA SAREA

Berradiskidetasun Prozesuetarako Nazioarteko Laguntza Sarea

Gernika Gogoratuzen ustez Berradiskidetasuna bakearen euskarriarik sendoena da, eta bake askatzaile eta iraunkor horren abiapuntua Berradiskidetasun Horizontea da, non erakundeak eraldatu eta zuzenagoak bihurtzea bilatzen den, oroimen historikoa berreskuratzea eta biktimak omenduz.

Gernika Sarea 1997an sortu zen bost kontinenteetako pertsona eta erakunderen lankidetzarekin. Berradiskidetasun horizonte baterantz bideratutako bakearen eraikuntza sustatu eta laguntzea zen gure asmoa. Sarearen bitartez berradiskidetasunaren bidean dihardugunon eginahalak batu egiten ditugu, eta denon arteko gogoetak elkarri plazaratu; halaber, Berradiskidetasuna eta Bake Positiboaren arteko loturak bilatu; Bake Positiboak bortizkeria aurreikusteko edo akordioak sustatzeko duen baliagarritasuna argitu, eta, azkenik, haietatik abiatuta gatazken tratamendurako eta bakearen hezkuntzarako metodo berriak ikertzen ditugu.

Gernika Sareak Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldietan urteroko bilera egiten du. Antolakundea idazkaritzarekin, ikerkuntza eta trebakuntza lantaldearekin eta dokumentazio eta argitalpen zerbitzuarekin hornituta dago.

Artekalea, 1-1º • E-48300 Gernika-Lumo • Bizkaia (Spain)
Tel.: +34 94 6253558 • Faxe: +34 94 6256765
Idazkaritza: gernikag@gernikagogoratuz.org
Dokumentazio Zentrua: gernikadok@gernikagogoratuz.org
<http://www.gernikagogoratuz.org>